

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Legorretako Udalaren adierazpena:

Martxoaren 8an, Emakumeen Egunean, orain arte lortutakoa ospatzeko egunetik haratago, honaino iristeko borroka egin duen Mugimendu Feminista eta norbanakoen lana aitortzeko eta aurrera begirako erronkak mahai gaineratzeko eguna da. Ezinbestekoa da eskubideen aldeko borrokan, mugimenduaren antolakuntzak eta interpelazioetatik, jendarte guztia inplikatzeko izan duen eraginaz mintzatzea. Zentzu honetan, instituzio honi dagokion ardura hartzetik aurkezten dugu adierazpen hau.

Bizitzari baldintza duin eta justuak lortzeko begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan. Horixe bera aldarrikatzen zuen duela 30 urte Beijigen onartu zen Emakumeari buruzko IV. Mundu Konferentziako akordioak. Ordutik aurrerapauso garrantzitsuak egin arren oraindik urrun gaude berdintasun erreal bat lortzetik.

Genero-desberdintasun estrukturalen gorakada errealitate ukaezina da. Krisi egoera honi egoki erantzungo dioten erantzun integralak premiazkoak dira, esparru eta maila guztietan, globaletik tokikoraino eta alderantziz. Horretarako, erakundeak koordinatu behar dira, eta bideak ireki herritarrek erabaki publikoetan benetan eta eraginkortasunez parte har dezaten, batez ere emakume-talde anitzek eta mugimendu feministak. Behar bezala aurre egin behar diogu daukagun erantzukizun publiko handiari, eta hori premisa feministetatik egin behar da, artikulazioa eta parte-hartzea bultzatuz, plan eta programa eraldatzaileak eginez, larrialdiei arreta emanez eta behar diren baliabide guztiak ahalbidetuz.

Egoera honen kontziente izan behar dugu eta horri erantzungo dioten politika publikoek emakumeek boteretzera ere eramán beharko lukete. Horretarako ezinbestekoa da Gobernantza Feminista aurrera eramatea.

Berdintasun Politikek, azken urteetan, oinarrizko sistema bat sortu dute, baliabide eta planez josia. Baina ezinbestekoa da zeharlerroan gauzatzea hauek, estruktura estankoko apurtu behar ditugu eta sail ezberdinen artean proiektu konpartituak eraiki eta kudeatu behar ditugu. Honi, Politika Feminista deritzogu, “emakumeen gaiak” ertzetatik atera eta unibertsal bilakatzea jo nahi dugu. Zaintzaz, ekonomiaz, hirigintzaz eta Indarkeria Matxistaz, guztiaz, ikuspegi feministatik aritu nahi dugu. Beharrian nabarmen eta erronka handi hauen aurrean, gure herriak, dinamika eraldatzaile eta partekatu bat abiatu behar du, erakundeetatik ahalegin eta konpromiso hori aitortuz, proposamenak eta aldarrikapenak jasoz, eta topaketa- eta elkarriketa-guneak bultzatu eta indartuz.

Horregatik guztiagatik, Legorretako Udalak honako hau erabaki du:

- Zaintza-lanen balio sozial eta politikoa aitortzen duten komunikazio-kanpainak egitea.
- Emakume eta neskatoen ahalduntze indibidual eta kolektiborako ekintzak bultzatzea.
- berdintasun-politikak garatzeko baliabide ekonomikoak, pertsonalak eta teknikoak indartzea.
- Berdintasunaren aldeko lanean generoaren eta giza eskubideen ikuspegia indartzea, bai eta Udaleko arloen arteko koordinazioan ere.
- Erakundeko langileen berdintasunari buruzko barne-prestakuntza bultzatzea.
- Ikuspegi intersektionalaren integrazioan aurrera egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko esku-hartze publiko osoaren ikuspegi inspiratzaile gisa.
- Erakundeen akordioak eta koordinazio-sistemak eta -protokoloak hobetzea eta aldian-aldian eguneratzea.

Herritarrei dei egiten diegu Aiuri Legorretako talde feministak eta oro har mugimendu feministak antolaturiko ekintza eta mobilizazioetan parte hartzera.